

ZIZURKILGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio Ponentzian ez ziren behar bezala jaso 1997.02.04ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onarturiko Arau Subsidiarioen Testu Bategineko 16 Sektorearen baldintzak, aipaturiko sektorea lur hiritarezina bezala gelditzen zelarik.

Horregatik guztiagatik, Zizurkilgo lurzorua eta ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- Arau Subsidiarioen Testu Bategineko 16 Sektoreari dagozkion baldintzak behar bezala jasotzea.

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hirilur lurraren mugak aldatzen dira, eta 851 zona katastrala deuseztatzen da.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.